

ARNASEA ARTU EZINIK

Konturatu zara, irakurle ori, aspaldion Deustun egoten dan aire kutsadura mailea sano igon dana? Urte bi, apur gorabeera, izango da egunean-egunean, geienetan ilundian, upealango gas-sunda gorria asmetan asi genduana etxekook.

Asikeratan oi dan lango gauzatzat artu bagenduan be, asteak, ileak joan eta etorri eta gas-sundea geroago eta biziagoa, denporan luzeagoa, iraunkorragoa eta, neure eritxi apalean, kaltegarriagoa izaten izan da.

Kaltegarriagoa dinotsut, eta ez daukat uste txikerrik orretan txintik be oker ez nabilenik, geure, danon osasunean txarrera sano eragingo daualako, luzetara edo laburretara.

Or egunero-egunero, baten be uts egin barik, birikietan eta odolean, gaur bai eta biar be, ekinean jabilkulako, karramarroaren beartxua geuri egiten.

Noz arte egon bear dogu olan, ba?

Inork pentsau lei: ederto, itxi eizak etxeko leioak eta kitu, gizona!

Eta egin alantxe egiten dogu. Zameak or dirau, baina, egun baten be lotu barik.

Loikeria naia. Ze, gitxi-asko be, lantzean beinean ia danok urtetan dogu etxerik zer edo a egiten, kakatza ori barruetagino sartuten jakula.

Ezin dogu-eta, noz edo noz burua kanpora atara barik bizi, geienok beintzat.

Nork sortu eta kanporatuten dau ori gasori?

Emoten dau kimika edo petrokimika arloan dabilen enpresaren batek egiten dauala gasa isurtzea.

Zorrotzaurre baino asagorik ara etorten jaku, aurki.

Deustun asmetan dogua aitatu badot be, berton ezeze, Basurto, Indautxu eta Abandoibarran be asmau leiteke, geurean bestean beste sendo edo bizi.

Seguru, beste alderdi batzuetan be arazo berbera sufriduten dabena. Ez da makala loikeria ori iruntsi bear dauan biztanle kopurua.

Norbera kokotagino egon eta ardura andiko gauzea dala eritxita, Deustuko zein gasak eragiten dituan beste alderdietako auzo alkarteai dei gorria egin gura deutset lerrootarik, batu daitezcan eta orren aurka egin leitekezanak egin daiezan.

Mesedez eta arren!

Iniaki PRIETO

EUSKAL ASTEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, Bilbao'ko Udalaren laguntzaz, urtero lez, Euskal Astea eratzen dau:

NON: Colon de Larreategi 14, 2^a

NOZ: Zemendiaren 21'etik 25'era.

ORDUA: Arratsaldeko 8'etan.

GAIK ETA IZLARIAK:

21. astelena: Paul Atutxa'k, Euskaldunen lurra (I)

22. artitzena: Martin Olazar'ek, Euskal literaturaren laburpena.

23. eguastena: Asier Legarreta'k: Bertso-papelak

24. egunea: Josemaria Murua'k: Kardaberaz Bazkuna.

25. barikua: Paul Atutxa'k: Euskaldunen lurra (II).

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ